

Erf.: Eraikinen ikuskaritza teknikoaren egiteko egutegi aldaketa  
Tx. zk.: 16/

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

## **TXOSTENA**

### **Planteatutako gaia**

Eraikinen ikuskaritza teknikoaren egiteko egutegia aldatzea onartzea.

### **Nork eskatu dauen txostena**

Ofizioz.

### **Argudio juridikoak**

#### **a) Aurrekariak**

Lehenengoa: 2016ko apirilaren 14ko Osoko Bilkurean, Eraikinen ikuskaritza teknikoaren egiteko egutegia onartzea erabagi zan.

Bigarrena: Urigintza batzordeak, Eraikinen ikuskaritza teknikoaren egiteko egutegia aldatzeko proposamena onartzearen aldeko erispena emon eban.

#### **b) Oinarri juridikoak**

Bakarra: Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikinen ikuskapen teknikoaren arautzen dauan 241/2012 Dekretuak, bere Bigarren Xedapen gehigarrian honakoa xedatzen dau:

“(…) udalek beren egutegia egin ahal izango dute udalerriko EIT azterketen plangitzan egiteko. Egutegi hori etxebizitza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinarazi beharko zaio.

Hala jakinarazitako egutegietan jasotako epeek kasuan kasuko lurralde historikoaren aldizkari ofizialean argitaratu ondoren izango dituzte ondorioak”.

Hori horrela, Udalak egoki ikusten dauan egutegia onartzeko ahalmena dauka eta, ondorioz, baita be be egutegia aldatzekoa.

Behin aldaketa onartuta, Eusko Jaurlaritzari jakinarazo eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dau eragina izan daian.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2016ko abuztuaren 30ean.

Karmele Muñoa Arrigain  
Behin-behineko Idazkaria